



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urtarilaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarilaren bederatzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarilaren 5a

Afitzatze eguna : 2023ko urtarilaren 5a

4. ERABAKIA: LAN GEHIGARRIEN KUDEAKETA

(4.1 nomenklatura)

Auzapezak, langileek egin ditzaketen lan gehigarrien kudeatzeko proiektua aurkeztu du.

Herri Biltzarrari dagokio finkatzea zer enplegutuan eman daitezkeen lan gehigarriak, eta horien ordaintzeko edo konpentsatzeko baldintzak.

1 – Balizko onuradunak

Lan gehigarriak egin ditzaketenak:

- funtzionario ikastun eta titularrak
- zuzenbide publikoko kontratupeko langileak, eginkizun eta hierarkia maila bereko funtzionarioen baldintza beretan.

2 – Lan gehigarriak egin ditzaketen enpleguak

Lan gehigarriak onar litezke C eta B kategoriako honako enpleguetan:

- Herriko Etxeko administrazio idazkaria (lurralde administrazio laguntzaileen eta lurralde erredaktoreen enplegu esparrua);
- Gaitasun anitzeko mantenu langilea (lurralde teknikari laguntzaile eta lurralde talde arduradun eta teknikarien enplegu esparrua)
- Gaitasun anitzeko langile teknikaria (lurralde teknikari laguntzaile eta lurralde talde arduradun eta teknikarien enplegu esparrua)
- ABLA (ABLA, lurralde animazio laguntzaile eta animatzaileen enplegu esparrua)

- Eskolaldi inguruko animatzailea (lurralde animazio laguntzaile eta animatzaileen enplegu esparrua)

- orain arte zerrendatu enpleguen eginkizunak betetzen dituzten kontratupekoen enpleguak.

3– Lan denboraren araberako kudeaketa

Lan gehigarriak eginarazteak ordain sariak dakartzalako, egin diren oren gehigarri eta osagarrien kopuruak zehazki zenbatzeko kontrol sistema automatizatua ezarri behar da.

Baina, lan gehigarriak egin ditzaketen langileen kopurua 10etik pekoa baldin bada, deklarazio bidez ere egin daiteke oren horien zenbatzea. Zenbatze hori honako enplegetan egin daiteke:

- Herriko Etxeko administrazio idazkaria (lurralde administrazio laguntzaileen eta lurralde erredaktoreen enplegu esparrua);

- Gaitasun anitzeko mantenu langilea (lurralde teknikari laguntzaile eta lurralde talde arduradun eta teknikarien enplegu esparrua)

- Gaitasun anitzeko langile teknikaria (lurralde teknikari laguntzaile eta lurralde talde arduradun eta teknikarien enplegu esparrua)

- ABLA (ABLA, lurralde animazio laguntzaile eta animatzaileen enplegu esparrua)

- Eskolaldi inguruko animatzailea (lurralde animazio laguntzaile eta animatzaileen enplegu esparrua)

- orain arte zerrendatu enpleguen eginkizunak betetzen dituzten kontratupekoen enpleguak.

3.1 – Oren osagarriak

Lanpostuarentzat aurreikusi diren orenetatik at egin diren orenak, baina denbora osoz ari den langile baten lan zikloaren iraupena gainditzen ez dutenean, lan horiek lan osagarritzat hartuko dira.

Oren osagarri baten ordain saria urteko zenbateko gordina 1820rekin zatituz lortzen da, eta hala balitz, denbora osoz ari den indize bereko langile baten erresidentzia ordain saria ere zatituz.

Oren osagarriek ez dakarte sariaren emendatzerik.

Denbora osoz ari den langile baten lan ziklotik at egiten diren orenen sariak indarrean den ehunekoan emendatuko dira.

3.2 – Oren gehigarriak

Egin daitezkeen oren gehigarrien kopurua hilabetearen 25 orenekoa da, eta oren horiek 2002ko urtarrilaren 14ko frantses estatuko 2002-60 dekretuaren arabera ordainduko dira.

Lan gehigarrientzako ordain sariak B eta C kategoriako langileei eta arlo mediko-sozialeko A kategoriako langileei ematen ahal zaizkie.

Denbora partzalean ari diren langileek oren gehigarriak egin ditzakete beren lan denboraren arabera: 25 oren x oren %a. Goititzerik gabe ordainduko dira.

Auzapezak oroitara du oren horiek ez direla baitezpada ordaindu behar, eta aitzitik, zerbitzuaren beharren arabera lurralde aginteak erabaki dezakeela orenak berreskuratzea. Konpentsazio modalitate horiek ezin dira metatu.

2022ko abenduaren 1eko Herri arteko Batzorde Teknikoaren iritzia ukan eta, Herri Biltzarrak, auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

KONTUAN IZANIK - Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorra,

- 1991ko irailaren 6ko 91-875 frantses dekretua, 1984ko urtarrilaren 26ko Lurralde Funtzio Publikoaren xedapenei buruzko legeko 88. artikuluko 1. lerrokadaren arabera hartua,
- 2002ko urtarrilaren 14ko frantses estatuko 2002-60 dekretua, lan gehigarrien ordain sariei buruzkoa eta onuradunen zerrenda finkatzen duena,
- 2020ko maiatzaren 15eko frantses estatuko 2020-592 dekretua, denbora ez osoz lurralde funtzio publikoan ari diren langileen oren osagarrien ordainketa emendatzeari eta kalkulatzeari buruzkoa,

ONARTU DITU - Auzapezak proposatu ordain sarien baldintzak.

ZEHAZTU DU - urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako,
- honako erabakia 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko dela indarrean.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 9an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/01/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/11n.